

### KONTSUMISMOAREN DISFUNTZIOAK

Kontsumoaren inguruan aldaketa izugarriak gertatzen ari dira gure artean. XX. mendean zehar auzoetako denda txiki eta familiarretan erostetik, kanpoko multinazionalen eskuetan dauden azalera handiko dendetan eta interneten erostera, kreditu txartelekin ordaintzera, larunbat osoa merkataritza zentroetan pasatzera zein inoiz aurretik pentsatuko ez genituen produktuak eta zerbitzuak kontsumitzera pasatu gara.

Areago, hasi besterik egin ez den iraultzaren aurrean gaudela iruditzen zaigu; gure erosteko ohitura, modu eta unek sakonetik aldatu eta *homo ekoizle* izatetik *homo kontsumitzaile* izatera eraman gaituen geldiezineko eraldaketaren aurrean. Kontsumismoa, gizartearen *Mcdonaldizazioa*, publizitatearen gehiegizko presioa eta elikagaien inguruko iruzurrak kontsumoaren arloan ematen ari diren birmoldaketa bizkorren adierazle eta ondorio batzuk besterik ez dira.

Artikulu honetan gure neurri gabeko erosketek sortzen dituzten disfuntzioak aztertzen ditugu. Besteak beste, kontsumismoak garapen bidean dauden herrialdeei eta, oro har, naturari egiten dizkion kalteak, elikagaien kalitatearen inguruan sortzen diren arazoak, gehiegizko erosketek sortzen dituzten gaitortasun psikiko zein fisikoak eta, oro har, gizakion bizitzan sortzen dituen aldaketen ondorio ezkorrak aztertzen ditugu.

## 1. Garapen bidean dauden herrialdeen esplotazioa.

Kontsumismoaren lehen disfuntzioa da, iraganean bezala, garapen bidean dauden herrialdeen esplotazioa gertatzen ari dela. Kanpo zorra behar bezala kudeatuz eta behin eta berriz negoziatuz, Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialdeen morrontza ekonomikoa ziurtatzen dute; eta horrekin, baita amaigabe kontsumitzen jarraitzeko aukera ere.

Kanpo zorrak kolonialismo mota berri bat sortu du. Izan ere, horren bitartez Iparraldeko herri aberatsek eurek nahi duten eredu eta baldintza ekonomikoak inposatzen dituzte, herrialde pobreen kontura nahi beste kontsumitzen jarraitzeko. Globalizazio ekonomikoaren tesi neoliberalak inposatuz munduan, ahal bezainbeste etekin ekonomiko atera nahi da herrialde pobreetatik. Kontuan izan 70eko hamarkadaren hasieran, 500.000 milioi dolarrekoa zela Garapen Bidean zeuden herrialdeen kanpo zorra eta, egun, 2.000.000 milioi dolarretik gorakoa dela. Afrikako herrialdeek bakarrik 350.000 milioi dolarreko zorra dute Mendebaldearekin.

Herrialde aberatsen gehiegizko kontsumoa mantentzeko beharrezkoak dira salneurri txikiak dituzten produktuak. Edo gauza bera dena, ezinbestekoa da hirugarren munduko langileen eta umeen lan esplotazioa (*Reebok* eta *Nike* enpresak, kasu). Hainbat Gobernu Kanpoko Erakundeek eman dituzten datuen arabera, munduan 125 milioi hurrek egiten dute lan, asko eta asko oso baldintza txarretan. Afrikan, adibidez, 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurren %50 inguru ez dira joaten eskolara, eta lanean aritzen dira. Ehuneko hori askoz ere handiagoa da nesken kasuan. Lanaren Nazioarteko Bulegoak salatu duenez, Peru, Bolivia eta Ekuadorko urte meatzetan adin txiki-ko 150.000 neska-mutil aritzen dira gutxi gorabehera lanean. Gizarte aberatsek urrezko bitxiak erabili ditzaten beharrezkoa da umeen lan esplotazioa.

Herrialde aberatsen kontsumismoa mantentzeko sortu den merkataritzaren liberalizazioak hirugarren munduko lehengaien eta baliabide naturalen ustiapena bultzatzen du. Hau da, Iparrak Hegoko baliabide naturalak behar ditu bere sistemari eusteko; izan ere, ez dago Iparraldeko herrialdeetan aski mehatzerik, ez petroliorik, ez urik, ez lurrik guk dauzkagun ekoizteko eta kontsumitzeko mailei eusteko. Adibide bat jartzearen, aipatu egin behar da munduan erabilitako petrolio guztiaren %55,9 Ameriketako Estatu Batuetan (%34,5) eta Mendebaldeko Europan (%21,4) kontsumitzen dela; Afrikan (%3,3) eta Amerika latinoan (%6,2), aldiz, petrolioaren %9,5 besterik ez.

Gure kontsumismoak garapen bidean dauden herrialdeengan dituen eragin ezkorrekin bukatzeko, gogoratu herrialde aberatsak interes ekonomikoen izenean kultura indigenen mendeetako ezagutza lapurtzen ari direla. Monsanto enpresak, esaterako, 1997. urtean hasi zuen orain arte egin den munduko bioprospekzio programa handiena. Enpresa honen helburua da kultura indigenen mendetako ezagutzetan oinarrituz, haiek erabiltzen dituzten landareen printzipio aktiboak isolatzea.

Sendabelar propietateak dituzten 35.000 landare espezie ezagutzen dira, eta industria farmazeutikoa hauen balioko propietateak patentatzeko presa handia du, etekin ekonomikoak ahal bezain bizkorren ateratzeko (Adibidez, Indiako usadiozko medikuntzan erabiltzen diren 7.000 landare sistematikoki patentatzen ari dira). Ikerketen arabera, landare estraktu edo osagai biologikoetatik eratorritako sendagaiek farmazien mundu mailako salmenten %40 osatzen dute, eta 1997. urtean, adibidez, 120.0000 milioi dolarretako etekinak eman zituzten.

## **2. Ingurumenaren narriadura.**

Kontsumismoaren bigarren disfuntzioa da bortitza egiten dio la munduko ingurumenari. Gure artean nagusitu den garapen eredia amaigabeko kontsumoan eta erabili eta bota lelopean oi-

narriturik dago. Garapen eramangarriari buruz behin eta berriz hitz egiten badugu ere, gaur egungo eredu kontsumistak eragin zuzena du ingurumenaren egoera eramangaitza indartzekoan.

Shell, MacDonalds edo Nestlé bezalako multinazionalak ekoizten dituzten produktuen truke kobratzen diguten salneurrian ez da inola ere agertzen produktuaren benetako balioa. Seriean kontsumitzen ditugun produktuen salneurrian ez dira islatzen baliabide naturalen gehiegizko erabilera eta energi gastuaren ondorio ezkorrak.

Energia nuklearrak sortzen dituen arriskuak, Amazonaseko basoen suntsiketa, milaka kilometro koadrotako eremuak ur azpian hartzen dituzten zentral hidroelektrikoak edo ozono geruzaren murrizketa (1964 eta 1976 urte artean zegoen ozonoaren %30 galdua dago gaur egun) gure kontsumismoak sortzen dituen, eta erosten ditugun produktuen salneurrian inola ere islatzen ez diren, arazoetariko batzuk besterik ez dira.

Bestalde, gure gizarteen kontsumismoak urte osoan produktu bolumen handia, homogeen samarra eta, gainera, merke ekoiztea eskatzen du. Ondorioz, lurrarentzat zein itsasarentzat kaltegarri diren ustiakuntza intentsiboak bultzatzen dira, naturari kalte handiak eraginez. Gabonetan eta ospakizun berezietan gure mahaietan ezinbestekoak diren otarrain eta otarraintxoak jateko, adibidez, mangladi ugari hondatu behar izaten da Asian eta Latinoamerikan, eta horrek itsas baliabideak murriztea (10 kilo arrain edo beste zenbait krustazeo, langostino kilo bakoitzeko), eta tokian tokiko herriei historian zehar bizibide izan dituzten baliabideak kentzea esan nahi du, kalte izugarriak eginez hainbat eta hainbat indigena talderi.

### 3. Naturaren lege eta mekanismoen bortxa.

Kontsumismoaren hirugarren disfuntzioa da naturaren mekanismo eta lege guztiak bortxatu direla: belarjaleak haragijale bihurtu ditugu, oiloak egunean gutxienez arrautza bat ematera

behartu ditugu eta era askotako barazki eta fruituak modu artifizialean urte guztian hartzea lortu dugu.

Hala ere, naturaren mekanismo eta legeen bortxaketa argiena gertatzen da produktu transgenikoekin. Hau da, gure kontsumismoak beren geneetan eraldakuntzaren bat izan duten elikagaien hedakuntza bultzatzen du; nahiz eta ikerketek argi erakutsi produktu hauek ondorio ezkor ugari dituztela. Besteak beste alergiak, minbiziak eta malformazioak eragin diezaiokeete eurekin harremanetan daudenei.

Labore transgeniko batzuk intsektu mota batzuk akabatzeko gaitasuna dute; baina, horiekin batera, hil nahi ez diren intsektu eta hegazti asko ere suntsitzen dituzte, inguruneari kalte izugarria eginez.

Pestizidek kalterik ez dietela egiten-eta, nekazariak era honetako produktu gehiegi erabiltzen dute, eta transgenikoak ez diren beste labore batzuk ere kutsatzen dituzte.

Landaketa sistema hauek, biodibertsitatearen galera eragiteaz gain, hazien eta ongarrien monopolioa multinazional gutxi batzuen eskuetan uzteko joerak areagotzen dituzte. Laborariak, beraz, enpresa handien morroi gelditzen ari dira, eta etorkizuneari hauek jartzen dituzten baldintzetan erosi beharko dituzte haziak zein behar dituzten ongarriak. Nekazariak lur eta hazien nagusi izatetik multinazionalen langile soil izatera pasatuko dira, eta janariaren monopolioa multinazional gutxi batzuen eskuetan geldituko da.

Azkenik, kontuan izan behar da labore transgenikoak laborantza intentsiboaren ardatz garrantzitsua direla, eta hori kalitate txarreko elikagaien arrazoirik garrantzitsuena dela.

#### **4. Bizitzaren industriaren indartzea.**

Kontsumismoaren laugarren disfuntzioak *bizitzaren industriarekin* du zerikusia. Hau da, orain arte jaberik ez zuten lan-

dare, animalia, nahiz baliabide naturalak bioteknologiako enpresa edo *bizitzaren industria* izeneko multinazional gutxi batzuen eskuetan geratzen ari dira. Eskaria egin dutenak eta onartu dituztenak kontuan hartuz, gaur egun 500.000 patente inguru daude, gehienak bioteknologiako enpresa gutxi batzuen eskuetan (Syngenta, Aventis, Pharmacia, Monsanto eta Dupont, besteak beste). Patatari ezarritako 1.100 patenteen %85,7, adibidez, 5 enpresa handi hauen eskuetan daude.

Nekazaritza, elikadura, nahiz botiken merkatua gero eta multinazional gutxiagoren eskuetan geratzen ari da, eta honek eragin ezkorak izango ditu kontsumitzaileontzat. Patente biologikoen monopolioak ugaritzen doazen neurrian, lehen doakoak ziren produktu askorengatik multinazionalak eskatzen dituzten guztia ordaindu beharko dugu. Eta horrek esan nahi du merkatuarekiko lehen baino dependentzia handiagoa izango dugula.

Bizitzaren industriaren beste ondorio ezkor bat da Hirugarren Munduaren ustiakuntza bortitza areagotzen duela. Jatorriz munduko patente biologikoen %90 garapen bidean dauden herrialdeetan egon arren, eskualde industrializatuetakako bioteknologiako 5 enpresa handienak dute hauen %95en jabe go edo patentea. Mendeetan Hirugarren Munduko baliabide naturalak ustiatu ondoren, gaur egun sendabelarren eta hauen ohiturazko erabilpenari buruzko jakituria lapurtzen ari dira multinazionalak, gero etekin ekonomikoak ateratzeko.

## **5. Kalitate txarreko elikagaiak eta osasun arazoak.**

Kontsumismoaren ondorioz gero eta kalitate txarragoko elikagaiak erosten ditugu. Gure gizartearen kontraesan garrantzitsuenetakoa da gure osasunari eta gorputzari garrantzi handia ematen diogula baina, aldi berean, ahoratzen ditugun elikagaiak kalitate eskasekoak direla. Behi zoroak, dioxinadun oilaskoak edo oliba-patsez egindako olioaren auzia, laborantza

intentsiboaren eta produktibismoaren ondorio batzuk besterik ez dira; etekin ekonomikoei garrantzia ematen dien ekonomia politiken emaitza dira, alegia. Gauzak horrela, ez da harritzekoa elikagaiei lotutako osasun arazoak ugaritzea.

1995. urtean Erresuma Batuan detektatu zenetik 100 pertsona baino gehiago hil dira behi eroen edo Creutzfeldt-Jakob gaixotasunagatik. Oraingoz sendagairik ez duen gaixotasun hau naturak dituen mugak gaindituz gerta daitezkeen osasun arazoen adierazle bat besterik ez da.

Halaber, merkatuak eskaintzen dizkigun aurrez prestatutako elikagaiek, jateko lasterrek edo zaborrezko jatekoek gure eguneroko dieta desorekatu dute eta kolesterola, azido urikoa, bihotzeko atakeak eta abar ugaritu dituzte. Gaur eguneko bizi baldintzak eta dena presaka egin beharrak aldaketa nabarmenak ekarri ditu jateko ohituretan, eta ogitartekoak, hanburgesak eta pizzak modan jarri dira; eta horrekin, baita elikagaiekin loturiko gaixotasunak ere.

Gure gorputzek behar duten baino gehiago eta txartoago jaten dugu, eta, ondorioz, gaixotasunei ateak irekitzen dien gizarte gizenagoa sortzen ari gara. Arrazoiak ugariak badira ere, kontuan izan behar da era honetako gaixotasunen atzetik autoestima baxua dagoela askotan. Gure gizartean indibidualismoak eta materialismoak norberaren garapen pertsonalari baino gauzak eduki edota kontsumitzeari garrantzi gehiago ematen dio. Horrek, sortzen duen autoestima baxua saihesteko, asko dira janaria hartzen dutenak bere bizitzako egiteko nagusizat. Arcago, loditasuna osasun publikoko arazo larri bihurtzen ari da, hain justu ere, gora eta gora egiten duelako gaixotasun hori jasaten dutenen biztanleen kopurua (biztanleen %12 lodi dago gure gizartean).

Beste batzuk, aldiz, ezberdin erantzuten diote kontsumismoari eta behar dutena baino gutxiago jaten dute. Hots, autoestima baxuak anorexia eta bulimia bezalako gaixotasunak bultzatzen ditu. Nafarroan, adibidez, %70 igo dira anorexia eta bulimia ka-

suak, eta 12 eta 25 urte bitarteko gazteen artean %2 daude gaitz horiek jota (Egunkaria 1999-12-11). Espainiako Senatuak eginiko ikerketa baten arabera, gero eta gazteagoak dira gaitz honek harapatzen dituen gazteak. Egun hamaika urteko gazteen kasuak ere ezagutzen dira. Arrakastaren kultura, gorputzari gorazarrea, edertasunaren industria, modak, kosmetikoek, dietak eta kirurgia estetikoek lagundu eta bultzatu egiten dute gaixotasun hau sortzen. Ahantzi gabe, edertasuna berdin argaltasuna dela sinetsi dugula, eta 38 eta 40 neurriko arropak bihurtu ditugula perfekzioaren ispilu eta arrakastaren erakusle.

Gizarte kontsumista honek gure gorputza behar bezala zaindu eta osasuntsu egoteko gauza naturalak jan behar ditugula esaten digu, produktu biologikoak, degradagarriak edo naturalak eskainiz. Gure bizitzen gehiegizko artifizialtasunak naturara bueltatzeko eta elikagai osasuntsuak jateko gogoak areagotu ditu, kasu askotan era obsesiboan. Zentzu honetan, elikagai loturiko azken gaixotasun psikologikoa ortorexia da; hau da, bakarrik elikagai sanoak jateko joera obsesiboa. Osasunarekiko eta gorputzarekiko gehiegizko ardura hau dutenak jan gabe gelditzen dira askotan, euren ustez osasuntsuak diren elikagaiak aurkitzen ez badituzte.

## **6. Frustrazioa eta arazo psikologikoak.**

Kontsumismoaren seigarren disfuntzioa gizartean metatzen ari den frustrazioarekin loturik dago. Ez dira gutxi ikus-entzunezko komunikabideetatik bidaltzen diren kontsumo mezu tentagarriak aurre ezin eginik arazo larriekin bizi direnak; iragarkietan eta, oro har, ikus-entzunezko komunikabideek islatzen den mundu osasuntsu, aberats eta arazorik gabea eskuratu ezinik goibel bizi dira, alegia.

Batetik, gero eta jende gehiagoren artean ugaritu egin dira arazo ekonomikoak eta zorrak. 1999. urtean, adibidez, EAE-ko familietako 12.650 buruk jaso zituzten Larrialdi Sozialetarako



Laguntzak. Halaber, asko dira gure artean kontsumismoak bultzatuta udan hamabost eguneko bidaiak egiteagatik zorretan sartzen direnak edo urte guztian izugarritzko murrizketak egiten bizi direnak.

Bestetik, kontuan izan behar da pertsona batzuentzat erosketak egitea arazo izugarria dela. Hobe esanda, arazoa baino gehiago gaixotasuna bihurtu da gure gizartean. Gero eta jende gehiago erosketa-menpekotasunaren menpe dago eta eros daitkeena baino gehiago erosten dute, behar ez diren gauzak erosten dituzte eten gabe, edo dendan behar baino denbora gehiago pasatzen dute. Ikerketa batzuen arabera, baliteke populazioaren %2 eta %8ren artean egotea erosketekiko mendekotasuna dutenen ehunekoa. Javier Garces psikologoak Espainian eginiko lanak erakutsi du daturik larrienak gazteen artean aurkitzen direla. Talde horretan %8ak du erosketa-menpekotasuna. Litekeena da kopuru bera izatea Euskal Herrian, eta Euskal Herriko gazteen %8 arduratzeko moduko kopurua da.

## **7. Multinazional handien inperioa.**

Kontsumismoaren zazpigarren disfuntzioak multinazionalen hedatzearekin du zerikusia. Izan ere, banaketa etxe handien inguruan, egoera monopolistikoa bultzatzen duten korporazio erraldoiak sortzen ari dira. 1999. urtean, esaterako, Carrefour munduko bigarren banaketa taldea bihurtu zen, Promodesekin batu zenean. Estatu Batuetako Wal-Mart-i aurre egiteko, fusio adiskidetsua egitea erabaki zuten; horrela, Estatu Batuetako Wal-Mart-en atzetik, Carrefour da munduko bigarren banaketa etxea, eta European lehena (Carrefour lehen banaketa taldea da, gaur egun, Frantzia, Espainia, Belgika, Portugal eta Grezian, baita Brasil eta Argentinan ere). Talde berriak 680 hipermerkatu, 2.600 supermerkatu, 3.200 beherapen denda eta 240.000 langile ditu, 26 herrialdetan sakabanatuta.

**Kapitala esku gutxi batzuen eskuetan metatzen ari da. Carrefourrek Promodesekin egindako fusioaren ondorioz, 54.000 milioi euroko fakturazioa eta 1.000 milioi euroko etekinak izan zituen 1999. urtean, aurreko urteetako etekinak bikoiztuz.**

Kapitalen metatzearekin batera, banaketa etxe handiek salmenta politika oso erasokorrak bultzatzen dituzte, denda eta establezimendu txikien etorkizuna arriskuan jarriz. Honen adibide argia da liburuen salmentarekin gertatzen ari dena. Espainiako Ministroen Kontseiluak bultzatutako liburuen salneurrien liberalizazioa aprobetxatuz, Carrefour, Alcampo eta Eroski bezalako merkataritza zentroek %25 merkatu dituzte Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikas liburuen salneurriak (El Corte Ingles-ek %15). Liburuetan galtzen dutena, bezero gehiago erakarriz irabazten dute. Ondorioz, liburu-saltzaile txiki askok ateak itxi behar izan dituzte denda erraldoiekin lehiatu ezinik.

Enpresa edo multinazional handien ugaritzeak lanpostuen galera ekartzen du. Denda txikien sektoreak bizi duen krisiaren ondorioz, aurrez erretiratzen direnen edo langabeziara doazen dendarien kopurua handituz doa.

Honekin lotuta, gogoratu egin behar da azalera handiko merkataritza zentroek denda txikiek baino langile gutxiago behar dituztela. Kontsumitzailearen lan eskua erabiliz gero eta jende gutxiago behar da hipermerkatu handietan.

Oro har, kontsumismoak bultzatzen duen gizarte antolakuntzak lehen baino lan-esku gutxiago behar du. Gasolina guk botatzen diogu autoari, barazkiak guk hartzen, pisatzen eta jartzen diegu salneurria eta zineetan, behar bezalako hiritarrak izateko, lurrera ezer ez botatzeko esaten digute. Urrutiko banka, hau da, Internet bitartez lan egiten duen banka bultzatzeko ere, eragiketak denbora errealean egiten direla, erosotasun, segurtasun eta erraztasun osoz azpimarratzen digute. Ez digutena esaten da, era honetako bankarekin gu bihurtzen garela bankuen langileak. Gure aisialdiko orduetan lana eginez, gutxiago

dira bankuek hartu behar dituzten langileak, eta horrek, lanpostuen galera dakar.

Monopolio eta multinazionalak lanpostuak sortzen dituztela behin eta berriz azpimarratzen badute ere, gauzak okertzen direnean, inolako arazorik gabe kaleratzen dituztela langileak. Adibide bat jartzearren, Hewlett-Packard-ek bere lehiakide Compaq Computer erosi zuen 2001. urtean, konputagailu pertsonalen (PC) alorrean lehenengo postua lortzeko helburuarekin. Fusioaren ondorioz sortu zen erraldoi informatikoak (biek batera merkatu kuotaren %19 kontrolatzea lortu zuten) lehenengo eta behin egin zuena da lanpostuak murriztuko zituela iragarri (Fusioa baino lehen 15.000 lanpostu kenduko dituztela iragarri zuten bi enpresek, eta fusioak milaka lanpostu gehiagoren murriztea ekarriko du).

Nazioarte mailako multinazionalak indartzen doazen neurri berean, gero eta etekin ekonomiko gehiago doa kanpora, Euskal Herriaren deskapitalizazio eta ahultze ekonomikoa erraztuz. Zentzu honetan, Carrefour taldeak 9 hipermerkatu dauzka Euskal Herrian (bi Angelun eta bana Bidaxunen, Miarritzen, Donibane Loitzunen, Erandion, Sestaon, Oiartzunen eta Olabarrian), eta pentsatzekoa da fusioaren ondoren lehen baino kapital gehiago doala hemendik kanpora.

Multinazionalen boterea handitzen doan heinean, kontrol argirik gabeko ekonomiak eta gero eta anabasa handiagoa duten gizarteak agertzen ari dira (langabezi estrukturala duten gizarteak, txiroen eta etxerik gabekoen gero eta kopuru handiagoa, kriminalitate tasa izugarriak...). Eta egoera honen arrisku-kuetariko bat da krisian sartuko diren gizarteak ugaritzen joango direla (Argentinako kasua) sistema bera zalantzan jarritz, edo gizarte klaseen borroken bidez edo erreakzio faxisten bidez (Gogoratu 2002.eko Frantziako Presidentziarako Hauteskundeetan Le Pen-ek lortutako bozka kopurua).

## 8. Bizitzeko eta harremanak egiteko modu, ohitura eta arauen aldaketa.

Kontsumismoak eragin izugarria du gure egunerokotasunaren maila guztietan; hain zuzen ere, orain arte nagusitu diren bizitzeko eta harremanak egiteko moduak, ohiturak eta arauak aldatzen ari direlako. Alde batetik, hirien zentroak jenderik gabe gelditzeko eta, ondorioz, herriek bizitza galtzeko arriskua dute. Ipar Euskal Herrian toki askotan aurretik gertatu den bezala, hiri handien inguruan azalera handiko dendak eraiki dira, eta hirien erdiak hutsik gelditzen joan dira. Merkataritza zentroak dira gure gizarteetako gune neuralgiko herriak.

Honekin batera, kontsumitzaile eta ekoizleen arteko harremanak zeharo apurtu dira. Egun, inorekin hitzik egin gabe edo inori ezer galdetu gabe aukeratzen eta erosten ditugu elikagaiak. Iraganean ez bezala, erosketa ekintza indibiduala bihurtu da. Guk hartu, poltsan sartu eta pisatzen ditugu produktuak, inorekin harremanetan jarri gabe. Laster, gainera, gero eta arrunta goa izan da makinari dirua sartu eta produktuak erostea. Itxura guztien arabera *vending* izenarekin ezagutzen den erosteko eta kontsumitzeko modu inpersonala hau indartzen joango da.

Gure herrietako merkatuetan oraindik gordetzen da kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena, baina era honetako merkatuetan *saltzaile dabilzanean adina begiratu* (Gernikara edo Ordiziako merkatura joatea besterik ez dago), badirudi salmenta modu hau desagertu egingo dela urte gutxiren buruan.

Azkenik, bereziki jakien banaketaren inguruan sortzen ari diren oligopolioek bultzatzen dituzten marketing estrategiaren homogeneotasunak kontsumitzaileen homogeneotasuna bultzatzen duela gogoratu behar dugu. Ekonomia eskalen etekinek eta gastuen arrazionaltasunak munduko kontsumitzaileen nahi, joera eta gustuen berdintzea ekarriko dute. Marketing kanpainak mundu osorako egiten dira gaur egun (Benetton,

Milka...), eta aldagai demografikoak (jaiotza-tasa txikiak, biztanleriaren zahartzea, langabezia, emakumeak etxetik kanpora lanean, sendien egonkortasun txikiagoa...), bizimoduak eta, oro har, gizaki eta gizarteen helburuak (indibidualismoa, kontsumo hedonistaren hazkundera, kontsumo sinbolikoaren garrantzia, gorputzarekiko miresmena...) berdintzen doazen neurrian, joera berdintzaileak are eta indartsuago agertuko dira. Indian eta Euskal Herrian iragarki eta produktu berdinak kontsumituko ditugu, eta, ondorioz, gure nortasun eta bizimoduak ere berdindu egingo zaizkigu, homogeneousotasun kulturalari bideak erraztuz.

CNN, Mcdonald's edo Microsoft bezalako talde ekonomiko indartsuek kontsumo eredu berberen arabera bizitzera bultzatzen gaituzte, herriek dituzten berezitasun eta identitateak desagertuz. Denborarekin elikatzeko, elkarrekin harremanetan sartzeko, informazioa lortzeko eta, oro har, bizitzeko modu berberak izango ditugu mundu osoan.

*Patxi Juaristi*